

HERRIZAINGO SAILA**Zk-6325**

298/1997 DEKRETU abenduaren 16koa, ertzaintzako funtzionarioen ordainsariei buruzkoa.

Euskal Herriko Poliziari buruzko 4/1992 Legearen 74. atalean ezarri denez, Euskal Poliziako funtzionarioen ordainsari-erregimena eta egitura Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen III. idazpuruko VII. atalburuan xedatutakoak araupetuko ditu.

Dena den, Ertzaintzako ordainsari-sistemaren egoitzapena atzeratu egin zen Legean bertan, harik eta kidegoaren behin betiko egituraren ikuspegia globala edukitzeko aukera izan arte. Horrela, bada, Ertzaintza lurralte guztian ezarri ondoren, beharrezko da ordainsari-sistema egokitzea.

Beraz, dekretu honen helburua hauxe da: Ertzaintza-aren ordainsari-sistema Euskal Herriko Poliziari buruzko Legearen aurreikuspenetara egokitzea eta zehaztea, eta hori egiteko kontuan izan behar dira batez ere, batetik, zerbitzu publiko polizialak dituen berezitasunak eta, bestetik, Ertzaintzak Autonomia Erkidegoaren Administrazio orokorrari dagokionez duen estatutu-erregimena, izan ere, berezitasun horiek isladatu egin beharko dira ordainsari-erregimenean eta egituran.

Ondorioz, Herrizaingo sailburuaren proposamenez, Ertzaintzaren Kontseiluak txostena eman ondoren, Estatuko Kontseiluarekin bat etorriz eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 1997ko abenduaren 16an egindako bilkuaran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

1. atala.- Dekretu honen helburua da Ertzaintzako funtzionarioen ordainsari-erregimena zehaztea, Euskal Herriko Poliziari buruzko 4/1992 Legearen 74. atalean ezarritakoarekin bat etorriz.

2. atala.- Oinarrizko ordainsarien zenbatekoak Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokoretan agertu beharko dira eta zenbateko horiek Funtzio Publikoari buruzko Legearen aplikazio eremuaren barruan dauden funtzionarioentzat ezarritakoak izango dira, dagokien sailkapen taldearen arabera.

3. atala.-

1.- Ertzaintzako eskala gorenari, egiterapen-eskalaria, ikuskapen eskalari eta oinarrizko eskalari dagozkien lanpostuak honela sailkatu dira:

- agente kategoria: 1. maila
- agente lehena kategoria: 2. maila
- ofiziale-ondoko kategoria: 3. maila
- ofiziale kategoria: 4. maila

DEPARTAMENTO DE INTERIOR**Nº-6325**

DECRETO 298/1997, de 16 de diciembre, de retribuciones de los funcionarios de la Ertzaintza.

El artículo 74 de la Ley 4/1992, de 17 de julio, de policía del País Vasco determina que la estructura y régimen retributivo de los funcionarios que integran la Policía del País Vasco se regirá por lo dispuesto en el Capítulo VII del Título III de la Ley 6/1989, de 6 de julio, de la Función Pública Vasca.

La adecuación del sistema retributivo de la Ertzaintza queda diferida sin embargo en la propia Ley a un momento posterior en el que se pudiera tener en consideración un panorama global de la estructura definitiva del cuerpo. Así, y una vez culminado el proceso de implantación y despliegue territorial de la Ertzaintza, es preciso proceder a la adecuación de su sistema retributivo.

El objeto del presente Decreto es por tanto la determinación y adecuación del régimen retributivo de la Ertzaintza a las previsiones de la Ley de Policía del País Vasco, que ha de realizarse teniendo en cuenta, con carácter fundamental, las características y peculiaridades que presenta tanto la prestación del servicio público policial como el régimen estatutario de la Ertzaintza respecto de la función pública de la Administración General de la Comunidad Autónoma, peculiaridades que, de forma evidente, han de tener reflejo en la estructura y régimen retributivo.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Interior, habiendo emitido informe el Consejo de la Ertzaintza, de acuerdo con el Consejo de Estado y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 16 de diciembre de 1997,

DISPONGO:

Artículo 1.- Es objeto del presente Decreto la determinación del régimen retributivo de los funcionarios de la Ertzaintza, de conformidad con lo previsto en el artículo 74 de la Ley 4/1992, de 17 de julio, de Policía del País Vasco.

Artículo 2.- Las cuantías de las retribuciones básicas, que deberán reflejarse en los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma, serán las establecidas para los funcionarios incluidos en el ámbito de aplicación de la Ley de Función Pública Vasca, de acuerdo con el grupo de clasificación que corresponda.

Artículo 3.-

1.- Los puestos de trabajo correspondientes a las escalas superior, ejecutiva, de inspección y básica de la Ertzaintza se clasifican en los siguientes niveles:

- categoría de agente: nivel 1
- categoría de agente primero: nivel 2
- categoría de suboficial: nivel 3
- categoría de oficial: nivel 4

- komisario-ondoko kategoria: 5. maila
- komisario kategoria: 6. maila
- intendente kategoria: 7. maila
- intendenteburu kategoria: 8. maila

2.- Lanpostu-mailako osagarria Ertzaintzako eskala eta kategorietako lanpostuen sailkapen mailari dago-kion ordainsari osagarria da, eta ordainsari osagarri horren zenbatekoa Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokoretan agertu beharko da urtero.

4. atala.-

1.- Berariazko osagarria lanpostuen zerrendetan agertuko da eta osagarri horrekin Ertzaintzako lanpostuen baldintza bereziak ordainduko dira. Berariazko osagarria elkarrekin bateragarriak diren osagai bik osatuko dute:

a) Osagai orokorra: osagai horren bidez arriskua, bateraezintasuna, etengabeko gertutasuna eta Ertzaintzako lanpostu guztietau dauden baldintza bereziak ordainduko dira.

b) Osagai berezia: lanpostuen zerrendan osagai hori duten lanpostuei bakarrik dagokie, bakoitzak bere osagaia izango du eta lanpostu bakoitzak dituen baldintza bereziak bakarrik ordainduko ditu, honako irizpideak kontuan hartuz:

1.a.- Erantzukizun eta zaitasun teknikoa: lanpostuak Ertzaintzaren egitura organikoan duen posizioaren arabera, lanpostu horretan egin beharreko jardueraren izaera, helmena eta eraginaren arabera, eta lanpostuan izateko eskatutako betekizunen arabera zehaztuko da.

2.a.- Dedikazioa: dedikazioaren osagaia kontuan izango da, baldin eta lanpostuaren ezaugarriak direla-eta lanpostu horri dagokion lanaldia luzeagoa bada, hain zuen ere, indarrean dagoen lanaldi normalizatua baino gutxienez hamabirena luzeagoa bada, eta debekatuta dago ohiko lanalditik kanpo egindako orduak ordutan edo dirutan ordaintzea. Era berean, dedikazioaren osagai hori kontuan izango da lan ordutegitik kanpo erabateko gertutasuna eskatzen denean.

3.a.- Nekagarritasuna: toxikotasun, deserrosotasun edo eragozpen ezaugarriek lanpostuan etengabeko eragina dutenean hartuko da kontuan osagai hau.

Era berean, nekagarritasuntzat hartuko da normalean zerbitzua eman behar izatea jai egun eta gau jakin batzuetan, edo baldintza hori dagoela ikusten den beste egun batzuetan.

4.a.- Arrisku berezia: Ertzaintzako lanpostu guztiekin berez duten arriskua baino arrisku berezi handiagoa duten lanpostuetan izango da kontuan osagai hau, baldin eta arrisku hori etengabekoa denean lanpostu horretan.

2.- Oinarritzko eskalan, ikuskapen eskalan, egiterapen-eskalan eta eskala gorenean, berariazko osagarria-

- categoría subcomisario: nivel 5
- categoría de comisario: nivel 6
- categoría de intendente: nivel 7
- categoría de superintendente: nivel 8

2.- El complemento de destino es la retribución complementaria correspondiente al nivel de clasificación de los puestos de trabajo de las escalas y categorías de la Ertzaintza cuya cuantía deberá reflejarse anualmente en los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma.

Artículo 4.-

1.- El complemento específico, que se reflejará en las correspondientes relaciones de puestos de trabajo, retribuirá las particulares condiciones de los puestos de trabajo de la Ertzaintza. El complemento específico estará integrado por dos componentes compatibles entre sí:

a) componente general: remunerará el riesgo o peligrosidad, la incompatibilidad, la disponibilidad permanente y demás condiciones particulares que concurren en todos los puestos de trabajo del Cuerpo de la Ertzaintza.

b) componente singular: será único para cada puesto de trabajo que lo tenga asignado en la relación de puestos de trabajo y remunerará única y exclusivamente las condiciones particulares concurrentes, en su caso, en cada puesto de trabajo atendiendo a los siguientes criterios:

1.º.- Responsabilidad y dificultad técnica: vendrán determinadas en función de la posición del puesto de trabajo en la estructura orgánica de la Ertzaintza, de la naturaleza, alcance y repercusiones de la actividad a desarrollar y de los requisitos exigidos para el desempeño del puesto de trabajo.

2.º.- Dedicación: se entenderá que concurre en aquellos puestos de trabajo que por sus características exija la observancia de una jornada habitual de presencia física superior a la normalizada vigente en, como mínimo, un doceavo de la misma, con prohibición de compensación horaria o económica de las horas que excedan de la jornada ordinaria. Asimismo, se entenderá que concurre en aquellos puestos de trabajo que exijan una absoluta disponibilidad fuera del horario de trabajo.

3.º.- Penosidad: apreciada en función de las características de toxicidad, incomodidad o molestias inherentes al puesto de trabajo cuando afecten al mismo de forma continua y no esporádica.

Asimismo se considerará penosidad la obligación de prestar servicios en determinadas jornadas festivas o nocturnas, de forma habitual, o en otras jornadas en las que se aprecie la concurrencia de la condición.

4.º.- Peligrosidad especial: se entenderá que concurre en aquellos puestos de trabajo caracterizados por un riesgo específico superior al inherente a todos los puestos de trabajo de la Ertzaintza cuando le afecte de forma continua y no esporádica.

2.- La cuantía máxima del componente singular del complemento específico no podrá ser superior, para

ren osagai bereziaren gehienezko zenbatekoak, ezin izango du lanpostuari dagokion eskalaren beheko kategoriari dagozkion oinarritzko soldataren, aparteko ordainsarien, lanpostu-mailako osagarriaren eta berrizko osagarriaren osagai orokorraren batuketaren %35 baino handiagoa izan.

5. atala.-

1.- Ekoizgarritasun-osagarriaren bidez errentagarritasun berezia, aparteko lana eta lanpostuetan agertutako interes edo iniziatiba ordainduko dira.

2.- Herrizaingo Sailak gastu programa bakoitzean horretarako zehaztutako kredituetan ekoizgarritasun-osagarri gisa emango diren zenbatekoak zehaztuko ditu, bai eta zein funtzionariok merezi dituen ere, Ertzaintzan ordezkaritza duten sindikatuek txostena eman ondoren Euskal Herriko Poliziari buruzko 4/1992 Legearen 103.2. atalean ezarritako negoziazio mahaian dituzten ordezkarien bidez.

Osagarri hori lanpostuaren garapenarekin zuzenzunean zerikusia duten gorabehera objektiboak eta Administrazioak eta langileen ordezkariek adostu lezaketen irizpide eta adordioak kontuan izanda emango da.

6. atala.-

1.- Aparteko zerbitzuengatik emandako lansarien bidez, ohiko lanalditik kanpo emandako zerbitzuak ordainduko dira, eta ez da inoiz zenbateko finkoa izango eta ordaintzean ere ez da aldizkakotasun jakinik izango.

2.- Aparteko lansariak Herrizaingo Sailak emango ditu gastu programa bakoitzerako zehaztutako kredituen barruan.

ALDIBATERAKO XEDAPENAK

Lehenengoa.-

1.- Euskal Poliziari buruzko 4/1992 Legearen aldi-betarako xedapenatarik hirugarrenean ezarritakoarekin bat etorri, dekretu honetan ezarritako ordainsari-erre-gimena 1997an ezarriko da.

2.- Aplikagarria den legerian ezarritakoaren arabera, Ertzaintzako funtzionarioen oinarritzko ordainsariak 1997rako, bat dato I. eranskinean ezarritako zenbatekoekin.

3.- 1997ko ekitaldirako Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontu orokorrak onartu zituen abenduaren 27ko 10/1996 Legearen 18. atalean ezarritakoaren arabera, Ertzaintzako lanpostuen sailkapen mailei dagoien lanpostu-mailako osagarria, finkatuta dago 1997rako II. eranskinean adierazitako zenbatekoetan.

cada una de las escalas básica, de inspección, ejecutiva y superior, al 35% de la suma del sueldo base, pagas extraordinarias, complemento de destino y componente general del complemento específico que corresponda a la categoría inferior de la correspondiente escala.

Artículo 5.-

1.- El complemento de productividad retribuirá el especial rendimiento, la actividad extraordinaria y el interés o iniciativa con que se desempeñen los puestos de trabajo.

2.- El Departamento de Interior asignará, dentro de los créditos determinados al efecto en cada programa de gasto, las cuantías individualizadas que correspondan en concepto de complemento de productividad y determinará los funcionarios que merezcan su percepción, previo informe de las organizaciones sindicales representativas en la Ertzaintza, emitido a través de sus representantes en la mesa de negociación prevista en el artículo 103.2 de la Ley 4/1992, de Policía del País Vasco.

Esta asignación se efectuará en función de las circunstancias objetivas relacionadas con el desempeño del puesto de trabajo y de los criterios o acuerdos que, en su caso, se alcancen entre la Administración y la representación del personal.

Artículo 6.-

1.- Las gratificaciones por servicios extraordinarios retribuirán los prestados fuera de la jornada ordinaria de trabajo, sin que en ningún caso puedan ser fijas en su cuantía ni periódicas en su devengo. No procederá su percepción en aquellos puestos de trabajo en que para la determinación del complemento específico hubiera sido ponderada una especial dedicación.

2.- Las gratificaciones extraordinarias serán asignadas por el Departamento de Interior dentro de los créditos determinados al efecto en cada programa de gasto.

DISPOSICIONES TRANSITORIAS

Primera.-

1.- De conformidad con lo dispuesto en la Disposición Transitoria Tercera de la Ley 4/1992, de Policía del País Vasco, el sistema retributivo que se establece en el presente Decreto se implantará dentro del presente año 1997.

2.- De conformidad con lo establecido en la legislación aplicable, las retribuciones básicas de los funcionarios de la Ertzaintza para el año 1997 se corresponden con las cuantías que se establecen en el anexo I.

3.- De conformidad con lo establecido en el artículo 18 de la Ley 10/1996, de 27 de diciembre, por la que se aprueban los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi para el ejercicio 1997, el complemento de destino que corresponde a los niveles de clasificación de los puestos de trabajo de la Ertzaintza, queda fijado para el año 1997 en las cuantías que se fijan en el anexo II.

4.- 1997rako kategoria bakoitzari dagokion beraizko osagarriaren osagai orokorraren zenbatekoa III. eranskinean zehaztuko da.

5.- Poliziaren Legearen aldibaterako xedapenetarik hirugarrenean ezarritakoaren arabera, Ertzaintzaren ordainsari-erregimena egokitzen, Herrizaingo Sailak berariazko osagarriaren osagai berezia jasotzea dagokien lanpostuak zehaztuko ditu eta osagaien zenbatekoa ere adieraziko du.

Bigarrena.-

1.- Dekretu hau indarrean sartzean guztiz desageruko dira ordainsariei buruzko lehengo erregimenean zehaztutako ordainsari guztiak, baita norbanakoaren osagarriak eta osagarri iragankorrik ere; horien ordez soldatu, hirurtekoak, aparteko ordainsariak, lanpostu-mailako osagarriak, berariazko osagarriak eta ekoizgaitasun-osagarriak sartuko dira indarrean.

2.- Dekretu honetan zehaztutako ordainsarien erregimena ezartzerakoan ordura arte hartutako ordainsari finkoak eta aldiak aldiko ordainsariak murriztu egingo balira, ukitutako langileak norberaren osagarria eta osagarri iragankorra hartzeko eskubidea izango luke, eta ordainsari orokoretan igoerak izanez gero, osagarri horiek irentsita geratuko lirateke.

3.- Aurreko puntuak aipatutako norberaren osagarria balorazio-prozesuaren ondorio baino ez denean, osagarri horrek ez du izaera irensgarririk izango harik eta lanpostuen horniketarako edo barne-sustapenerako prozesuan parte hartu eta beste lanpostu bat izan arte; horrek ez die kalterik egingo urrengo ekitaldi batzuetan zehaztutako eguneratzeei.

Hirugarrena.-

Ertzaintzako lanpostuen zerrenda onartu arte gaur egun indarrean dagoen lanpostuen egitura ezarriko da; hori bat dator 1997ko uztailaren 28ko Aginduko aldibaterako xedapenean zehaztutakoarekin, izan ere, horren bidez Ertzaintzako egitura zehaztu zen (abuztuaren 8ko EHAA, 150. zk.)

Laugarrena.-

Euskal Poliziari buruzko uztailaren 17ko 4/1992 Legean fakultatiboen eta teknikarien eskalari buruz zehaztutakoa garatuko duen araua indarrean sartu arte, Musika Banda Zerbitzuko musikariek euskal administrazioko 16. maila izango dute, eta zuzendariaiak 21.a. Horien lanpostu-mailako osagarria maila horientzat zehaztutako urteko zenbatekoei dagokiena da; urteko zenbateko horiek euskal herri-administrazioko funtzionarioei dagozkien arauetan daude zehaztuta.

4.- La cuantía del componente general del complemento específico que corresponde a cada categoría para el año 1997 será la establecida en el anexo III.

5.- De conformidad con lo establecido en la Disposición Transitoria Tercera de la Ley de Policía, y a efectos de completar la adecuación del régimen retributivo de la Ertzaintza, el Departamento de Interior procederá a determinar los puestos de trabajo a los que corresponde la percepción del componente singular del complemento específico, señalando su respectiva cuantía.

Segunda.-

1.- El sueldo, trienios, pagas extraordinarias, complemento de destino, complemento específico y complemento de productividad sustituirán a la totalidad de los conceptos retributivos correspondientes al régimen retributivo anterior, incluidos los complementos personales y transitorios reconocidos al amparo de regímenes retributivos anteriores a la entrada en vigor del presente Decreto.

2.- Si como consecuencia de la aplicación del régimen retributivo establecido en el presente Decreto se produjera minoración sobre las retribuciones fijas y periódicas que se vinieran percibiendo, el personal afectado tendrá derecho a un complemento personal, transitorio y absorbible por los posteriores incrementos que, en su caso, se produzcan sobre sus retribuciones globales.

3.- Cuando el complemento personal a que se refiere el apartado anterior traiga su causa exclusivamente de un proceso de valoración, dicho complemento no tendrá carácter absorbible hasta que, como consecuencia de la participación en procesos de provisión de puestos de trabajo o de promoción interna, se pase a desempeñar otro puesto de trabajo, y ello sin perjuicio de las actualizaciones que le sean de aplicación en sucesivos ejercicios presupuestarios.

Tercera.-

En tanto no se apruebe la relación de puestos de trabajo de la Ertzaintza, continuará aplicándose la estructura de plazas de plantilla del Cuerpo actualmente vigente, de conformidad con lo dispuesto en la Disposición Transitoria de la Orden de 28 de julio de 1997, del Consejero de Interior, por la que se establece la estructura de la Ertzaintza (BOPV n.º 150, de 8 de agosto).

Cuarta.-

Hasta la entrada en vigor de la norma que desarrolle las previsiones de la Ley 4/1992, de 17 de julio, de Policía del País Vasco sobre la Escala de facultativos y técnicos, los puestos de trabajo de músico y director del Servicio Banda de Música se clasifican en los niveles 16 y 21, respectivamente, de los correspondientes a los puestos de trabajo de las Administraciones Públicas Vascas, y cuyo complemento de destino se corresponderá con las cuantías anuales fijadas para tales niveles en la normativa de aplicación a los funcionarios de dichas Administraciones Públicas.

Musika Bandako musikariei eta zuzendariari beraizako osagarria ematen bazaie, Ertzaintzako lanpostuen zerrendan adieraziko da, eta osagarri horren bidez dekretu honetako 4. atalean zehaztutako irizpideei jarraituz lanpostu horiei dagozkien baldintza bereziak ordainduko dira.

INDARGABETZE XEDAPENA

Indargabetuta geratuko dira dekretu honekin bat ez datozen eta xedapen honen maila bera edo txikiagoa duten xedapen guztiak.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa: Herrizaingo sailburuari ahalmena emango zaio dekretu hau garatzeko beharrezko diren xedapenak emateko.

Bigarrena: dekretu hau Euskal Herriko Agintari-tzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 1997ko abenduaren 16an.

Lehendakaria,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

Herrizaingo sailburua,
JUAN MARÍA ATUTXA MENDIOLA.

I. ERANSKINA

OINARRIZKO ORDAINSARIAK (hilerokoak)

| TALDEA | SOLDATA | HIRURTEKOIA |
|--------|---------|-------------|
| A | 152.037 | 5.838 |
| B | 129.038 | 4.670 |
| C | 96.189 | 3.505 |
| D | 78.651 | 2.340 |

II. ERANSKINA

LANPOSTU MAILAKO OSAGARRIEN ZENBATEKOAK (hilerokoak)

| MAILA | ZENBATEKOIA |
|-------|-------------|
| 1.- | 640.815 |
| 2.- | 750.251 |
| 3.- | 800.371 |
| 4.- | 1.108.354 |
| 5.- | 1.214.468 |
| 6.- | 1.449.468 |
| 7.- | 1.549.482 |
| 8.- | 1.799.482 |

El complemento específico que, en su caso, se asigne a los puestos de trabajo de músico y director de la Banda de Música, se reflejará en la relación de puestos de trabajo de la Ertzaintza y retribuirá las particulares condiciones concurrentes, en su caso, en cada uno de estos puestos en aplicación de los criterios establecidos en el artículo 4 del presente Decreto.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Quedan derogadas todas aquellas disposiciones de igual o inferior rango que se opongan a lo establecido en el presente Decreto.

DISPOSICIONES FINALES

Primera: Se faculta al Consejero de Interior para dictar las disposiciones necesarias para el desarrollo del presente Decreto.

Segunda: El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 16 de diciembre de 1997.

El Lehendakari,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

El Consejero de Interior,
JUAN MARÍA ATUTXA MENDIOLA.

ANEXO I

RETRIBUCIONES BÁSICAS (mensual)

| GRUPO | SUELDO | UN TRIENIO |
|-------|---------|------------|
| A | 152.037 | 5.838 |
| B | 129.038 | 4.670 |
| C | 96.189 | 3.505 |
| D | 78.651 | 2.340 |

ANEXO II

CUANTÍAS DEL COMPLEMENTO DE DESTINO (anual)

| NIVEL | CUANTÍA |
|-------|-----------|
| 1.- | 640.815 |
| 2.- | 750.251 |
| 3.- | 800.371 |
| 4.- | 1.108.354 |
| 5.- | 1.214.468 |
| 6.- | 1.449.468 |
| 7.- | 1.549.482 |
| 8.- | 1.799.482 |

III. ERANSKINA

BERARIAZKO OSAGARRIAREN OSAGAI
OROKORRAREN ZENBATEKOA (urterokoa)

| KATEGORIA | ZENBATEKOA |
|-------------------|------------|
| AGENTEA | 1.524.000 |
| AGENTE LEHENA | 1.568.000 |
| OFIZIALE-ONDOKOA | 1.708.000 |
| OFIZIALEA | 1.795.000 |
| KOMISARIO-ONDOKOA | 1.879.000 |
| KOMISARIOA | 2.044.000 |
| INTENDENTEA | 2.222.000 |
| INTENDENTEBURUA | 2.372.000 |

ANEXO III

CUANTÍA DEL COMPONENTE GENERAL
DEL COMPLEMENTO ESPECÍFICO (anual)

| CATEGORÍA | CUANTÍA |
|-----------------|-----------|
| AGENTE | 1.524.000 |
| AGENTE PRIMERO | 1.568.000 |
| SUBOFICIAL | 1.708.000 |
| OFICIAL | 1.795.000 |
| SUBCOMISARIO | 1.879.000 |
| COMISARIO | 2.044.000 |
| INTENDENTE | 2.222.000 |
| SUPERINTENDENTE | 2.372.000 |

Bestelako Xedapenak**HERRIZAINGO SAILA****Zk-6326**

297/1997 DEKRETUA, abenduaren 16koa, Ertzaintza-en 1997. eta 1998. urteetarako lan-baldintzak arautzen dituen akordioa onartzen duena.

Euskal Herriko Poliziari buruzko uztailaren 17ko 4/1992 Legeak, Ertzaintzako funtzionarioen lan-baldintzak finkatzerakoan zer-nolako partaidetza izan behar duten arautzen du; parte hartzetik, Ertzaintza-k sindikatuen bidez egingo da 99. eta 103.2 artaletan ezarritakoaren arabera.

Aurreikuspen horietan jasotakoa betez eratu zen Ertzaintzako negoziazio mahaia. Egoera horretan ekin zi-tzaion, sindikatuekin batera, lege horretako 103. atalean adierazitako negoziaketa prozesuari. 1997 eta 1998. urterako lan-baldintzak finkatzea izan da akordio horren emaitza, ELA sindikatuarekin batera izenpetu ondoren lortutakoa, alegia.

Lege horietan jasotakoa kontutan hartuz, Euskal Autonomi Elkarteko Administrazioko Jaurlaritzaren Kontseiluak onartu behar du, adieraziz eta formalki, akordio hori, balioduna eta eraginkorra izan dadin. Onarpen hori dekretu honen bidez ematen zaio.

Ondorioz, Herrizaingo sailburuaren proposamenez eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 1997ko abenduaren 16an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

Otras Disposiciones**DEPARTAMENTO DE INTERIOR****Nº-6326**

DECRETO 297/1997, de 16 de diciembre, por el que se aprueba el Acuerdo regulador de las condiciones de trabajo para los años 1997 y 1998, del Personal de la Policía Autónoma del País Vasco.

La Ley 4/1992, de 17 de julio, de Policía del País Vasco, regula la participación de los funcionarios de la Ertzaintza en la determinación de sus condiciones de trabajo que se efectuará a través de las organizaciones sindicales representativas de la Ertzaintza, conforme a lo dispuesto en los artículos 99 y 103.2 de la misma.

En cumplimiento de la referida previsión, se constitúa la Mesa de Negociación en la Ertzaintza, iniciándose en dicho ámbito, el proceso de negociación con las Organizaciones Sindicales a que se refiere el art. 103 de la citada Ley, que ha concluido con el Acuerdo alcanzado en la determinación de condiciones de trabajo para los años 1997 y 1998, suscrito con el Sindicato E.L.A.

La validez y eficacia del Acuerdo obtenido requiere, atendiendo a las previsiones contenidas en las citadas Leyes, de su formal y expresa aprobación por el Consejo de Gobierno de la Administración de la Comunidad Autónoma, a la que se procede ahora mediante el presente Decreto.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Interior, y previa deliberación del Consejo de Gobierno, en su reunión del día 16 de diciembre de 1997